



OÑATI
dabilen herria

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2019

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2019

Udal aurrekontuak herritarrek eztabaidatu eta erabakitzekeo partaidetza prozesua

2018/06/11KO LEHENESTE SAIOA

Akta

BILERAREN XEHETASUNAK:

Aisialdia, berdintasuna, elkarbizitza, euskara, haur eta gazteak, hezkuntza, kulturartekotasuna eta ongizatearen inguruko proposamenak baloratzeko saioa.

Hitzordua: 2018/06/11 18:30tan Euskaldun berri gelan

DINAMIZAZIOA:

- 13 pertsona.
- Partaidetzako teknikaria: Onintza Andres
- AZTIKER aholkularitza: Maitane Barrenetxea eta Maitane Zaldibar

Guztiori, eskerrik asko!



ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Onintza Andres, Oñatiko partaidetzako teknikariak parte hartzaileei ongi etorria eman die. Partaidetzako aurrekontuen bigarren fasean gaudela azaldu du eta Aztikerreko teknikariei eman die hitza.

Honen ostean, Aztikerreko teknikariek gaurko saioaren nondik norakoak azaldu dituzte:

- 1.- Jasotako proposamen guztien datuak
- 2.- Proposamenek jarraitzen duten ibilbidea
- 3.- Balorazio politikoaren ostean kanpo gelditu direnak zenbakitan. Gaur landuko diren arloetan kanpo gelditu direnak eta zergatia
- 4.- Proposamenak lehenesteko ariketa

PROPOSAMENEN DATUAK

Jasotako proposamen guztien azalpen txiki bat eman da: denera 376 proposamen jaso dira. Horietatik, 257 postontzietan, 59 internet bidez eta 60 herritarrekin egindako bilera irekietan.

1. FASEA DATUTAN 1ª FASE EN DATOS



□ 376 proposamen
109 errepikatuak
267 errepikatu gabe

□ Euskaraz 263
Saio irekiak 45
Web 43
Postontziak 175

□ 376 propuestas
109 repetidas
267 no repetidas

□ 113 en castellano
15 Sesiones abiertas
Web 16
82 Buzones

Honen ostean, politikariek prozesuaren hasieran ezarritako irizpideen arabera proposamen guztiak irakurri eta baloratu dituztela azaldu da eta honako arrazoiak direla eta utzi dituzte kanpoan proposamen batzuk:

1. **Ez da udalaren eskumena:** Proposamen batzuk udalak ezin ditu kudeatu bere erabakigunea ez delako (Gipuzkoako Foru Aldundia, Mankomunitatea, Urak,...)
2. **Kudeaketari dagokio:** Aurrekonturik ez du behar, hau da, udalaren funtzionamenduan aldaketa batzuk eskatzen ditu, baina ez du gasturik behar.
3. **Irizpide politikoak ez ditu betetzen:** Bi proposamen kanpoan gelditu dira arrazistak zirelako.
4. **Aurreikusita dago:** Aurten udalak egingo du.
5. **Orokorregia da:** Proposamen bat baino helburu bat diren proposamenak.
6. **Aurrekontua erraz gaindituko du:** Proposamenek ezin dute 120.000€-ko aurrekontua gainditi, bestela proposamen bakarrak aurrera egin dezakelako eta batek baino gehiago aurrera egitea lehenestea arabaki zen.
7. **Egiten da/badago:** Udaletxeak, proposatutako hori jada egiten du.

Proposamen asko errepikatuak zeuden edo oso antzekoak ziren, beraz ordezkari politikoek 266 proposamen baloratu behar izan dituzte (errepikatuak batu egin zirelako) eta honako hauek dira datu orokorrak:

☐ Balorazio politikoaren ostean

- Aurrera 161

- Kanpo 105

 - Aurreikusita 8

 - Aurrekontua gainditu 10

 - Badago/Egiten da 4

 - Udalaren eskumena ez 22

 - Irizpide politikoak 2

 - Kudeaketa 43

 - Orokorra 16

Gaur landuko diren gaiei dagokionez, hona hemen kanpoan geratutako proposamenen zerrenda eta zergatia:

Aisialdia

- Aurreikusita

 - Etxaluzeko parke gorrian pentsatutakoa baino berde gutxiago eta jolasleku gehiago jarri
 - Etxaluzeko parkea eraberritu

- Aurrekontua gainditu

 - Cine infantil, mayor aforo
 - Natur elementuekin eginiko parke bat bikain legoke ez dakit ea proiektua martxan den San Martinen
 - Erdi estalitako lekuren bat gehiago ondo legoke. Adibidez plazako frontoia estaltzea edo erdi estaltzea...

- Irizpide politikoak ez bete

 - Un centro comercial. Channel, zara,...

- Kudeaketa

 - Igerilekua berritzu eta kantxa berdeko porteriak lotu
 - Zineman palomitak jan ahal izatea
 - Usakon. Belar gunea txukundu; lurra berdinduz zuhaixkei beheko eremuka moztu. Belar eremua zehaztu eta hesiak ondo jarri. Bertara doazen bideak urtean behi garbitzen dira, sarriago egin.
 - Antzerkiko sarrerak kultur etxean erosi ahal izatea (lehengo moduan) nahi duzunean

Berdintasuna

- Urte baterako bakarrik ezin da

 - Genero buruzko kurtsuak jarraitzeko bi beka. Eta beka horren ordez, Oñatira zabaldu behar du ikasitakoa, koordinatu bilerak Oñatiarrekin ta generoari buruz lantzen dutenekin

Elkarbizitza

- Kudeaketa

 - Personal para seguridad por la noche. Presencia de autoridad física.

Euskara

- Kudeaketa

 - Clases de euskera

Haur eta gazteria

- **Kudeaketa**
 - Algún sitio para que jueguen los niños. En Eltzia se podría habilitar un espacio que los niños estén y jueguen
 - Auzo ludotekak
 - Ampliar el tiempo para los udalekus en el verano
 - Ampliar las actividades para el entretenimiento para niños y jóvenes
 - Alargar el tiempo y horas para los gaztelekus. Topalekuaren ordutegia ostiral, zapatu eta domekan 30 minutu luzatzea. Gaztelekuko ordutegia zabaltzea.
- **Egiten da**
 - Umiendako ekintzak zabaldu parke guztietara. Ez bakarrik plazan. Txandakatuz herri guztian.
- **Ez da udalaren eskumena**
 - Gazteendako lokal gehiago

Hezkuntza

- **Ez da udalaren eskumena**
 - Que en las escuelas se dé más ética, con personas que estén especializadas en este tema
 - Invertir en la educación, principalmente en los idiomas
 - Mejorar el sistema educativo sobre todo la pública

Lana

- **Badago**
 - Una oficina de orientación para formar puestos de trabajo

Herriko jaiak

- **Kudeaketa**
 - Las txosnas en Olaiturri

Ongizatea

- **Ez da udalaren eskumena**
 - Servicio médico de urgencias
 - Activar un servicio médico
- **Irizpide politikoak ez bete**
 - Ayudar a las familias oñatiarras que estan mal economicamente prioridad...no al extranjero...y mirar mas al extranjero que miente y tienen cuatrocientos curros y cobran ayudas...servicios sociales debe mirar mas e investigar mas donde da las ayudas.bajada de impuestos que estan muy elevados y no somos Donostia somos un pueblo humilde a mi parecer...
 - Ayuda a las familias oñatiarras que están pasando mal dar prioridad al pueblo antes que al extranjero.
- **Kudeaketa**
 - En el bar de Eltzia, que es del ayuntamiento, hacer una concesión para mujeres que pierdan el empleo. Contratarlas temporalmente.
 - Para personas mayores de x años y con ingresos menores de x euros el herribus gratuito y que llegue hasta Olabarrieta y Zubillaga
 - Impulsar o ayudar desde el ayuntamiento a vitalizar el pueblo y dar servicio a los vecinos y vecinas
- **Esparru pribatua**
 - Etxebizitza bat erosten dugunak askotan erreformak egin behar ditugu eta horretarako diru laguntza bat ez litzateke gaizki egongo

LEHENESTEKO ARIKETA

Proposamenen balorazioa aurkeztu ostean, proposamenak lehenesteari ekin zaio eta horretarako ariketa praktiko bat egin da.

Gaurko lanketa egiteko zein irizpide ziren egokienak erabakitzeko, ariketa praktiko bat egin zen ekainak 4ean gerturatutako herritar guztiekin. Zortzi irizpide desberdin zeuden eta eztabaida eta ariketa praktiko baten bidez, jarraian aurkezten diren hiruak erabiltzea erabaki zen:

1. Herritarren egunerokoa errazten du. Irisgarritasuna, Segurtasuna, Oinezko ibilbideak, bizi kalitatea...
2. Elkarbizitza eta hiritartasuna bultzatzen ditu. Proiektu eta proposamen hezitzaileak dira.
3. Jasangarritasuna sustatzen duten neurriak izatea.

Amaitzeko, parte hartzaile bakoitzak gustuko hiru proposamen aukeratuko ditu.

Irizpide horiek erabilia hau da proposamen bakoitzak jasotako puntuazioa:

Oharra: Parentesi artean batu diren proposamenak ageri dira . Adb: (2) 2 proposamen daude elkarrekin idatzita

** Dutenak, zenbat aldiz dauden errepikatuta adierazten du. Adb *4 Proposamen berdina 4 aldiz egin dela*

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
1	Txorimalos más tiempo	- 10	0	10	0	0
2	Actividades que generen relaciones humanas a parte de la vida en los bares. El cine club podría completar la posibilidad de una discusión luego de cada película.	-4	11	9	1	17
3	Cine al aire libre	7	10	9	1	27
4	Zinean palomiten denda.	-6	-7	-1	0	-14
5	Plazan parke bat eraikitzea	3	3	-1	1	6
6	Mejorar la zona de Usako (areas de descanso). Usakon txiringittoa. Usakon txiringittoa jateko han gaudenean. Usakon txiringua jarri (4)	-6	-6	-6	2	-16
7	En Usako hay un pozo precioso y enfocado principalmente para los que saben nadar. Después hay un paso con canales que dejan pasar el agua del pozo principal Después del paso hacer un pozo de poca profundidad para los que no sepan nadar o puedan aprender. Después otro paso con canales . A continucaión un pozo para niños pequeños o babes	- 9	-11	-12	0	-32
8	Barbacoas en Santa Lucia	-11	-3	-10	0	-24
9	Ugarkaleko umeen parkea estali. San Martineko komun publikoa bezalakoa jarri.	7	5	8	1	21
10	San Martineko zuhaitzia, argia, bankuak, belarra egokitzea,... eroso bilakatu	-3	-4	-4	0	-10
11	San Martin auzoko parkean eguzkitik babesten duen estalpea jarri (gaur egungoak ezer gutxi estaltzen du). San Martingo haur parkea estali	7	5	8	1	21
12	Colocar más mesas en Ugarkalde. Beste 5 edo 6 mahai jarri. (2)	-9	-7	-4	0	-20
13	Aqua park 2* Otro parque de agua(2)	-8	-9	-9	0	-26
14	Haurrak jolasteko parke gehiago. Toboganak	6	8	3	0	17
15	En algunos parques poner actividades para niños/as de 6 a 14 años. El otro dia vi en Tolosa un parque con actividades de equilibrio con cuerdas. Y estaba lleno de niños/as de edades entre 6 y 12 calculo yo. Saqué unas fotos y si quereis os puedo enviar. Errekalde eskola gunean, kanpoko patio eta zelaiak erabiliz, herritar guztien eskura egongo litzateken jolas parke alternatiboa egitea. (2)	10	8	5	0	23
16	Bidebarrietako Maiatzaren 1eko plazaren ingurunea eta parkea zaharkituak geratu dira. Ondo egongo litzateke soken parke bat (abentura parke txiki bat), tirolina bat edo zerbait desberdina bertan. Eta bidearen beste aldean forma bereziko berdeguneren bat...	-3	-2	-1	0	-6
17	Loiola eta kurtzekoa kalearen tartean dagoen parkeari bukaera eman behar zaiola uste dot. Oso ondo zainduta dago baina haurrentzat ziburuak jartzeko espazioa hutsik dago eta pena bat da, hor jentea esertzen delako toki lasaia izanik.	-6	-5	-4	0	-15
18	Izotz pista *4	-9	-8	-7	0	-24
19	Olakuako saskibaloian jolasten dugun herritar talde bat gara. Udaberrian eta udan asko jolasten dugu eta inguruan beste herritar ugarik erabiltzen dute jolasleku hau. Tamalez ondo jokatzeko behar diren marrak ez dira ikusten. Honako hau eskatzen dugu: Saskibaloian eta beste kiroletan jolasteko marrak margotzea. Saskietako sareak	10	10	10	0	30

	konpontzera. Negurako 9-ak arte jolastu ahal izateko argiak ipintzera. Olakuako parkea berriztu, kanasta berri batzukin.(2)					
20	Pistin txirristak *8	-5	-6	-4	0	-15
21	Kaixo, gure gazteei zuzendutako proposamen bat dut, umeentzat gehienbat, baina izan daiteke denek erabiltzeko egokia. Txikitatik izan dut amets bat; txirrista erraldoi eta luze bat bertan jeisteko, ze dibertigarria! Badira Oñatin leku aproposak hortarako, San Lorentzo auzoko patioak adibidez. Tubozko txirrista batzuk, patieoetako altuera ezberdinak aprobeztatuz.	-6	-3	-6	0	-15
22	Rokodromo baxuren bat ere jarri daiteke herriko paretaren baten edo beste, San Lorentzon bertan ez dakit pareta egokirik den hortarako, haurrei asko gustatzen zaie eskalatzea, baita nagusieri ere!	5	10	8	0	23
23	Txiki parka. Txiki park erraldoia pagatu barik	-4	-3	-6	0	-13

BERDINTASUNA

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
24	Berdintasuna gehiago landu. Berdintasun plan osatuagoa	11	10	11	3	35
25	Oñatiko Emakume Txokoa/Etxea martxan jartzea. -Emakumeentzat txokoa edo leku aproposa gertatzea.- Emakumeentzat jabetze eskola eta ikastaro eta ekimenak indartzea, gehiago eskaintzea. Emakume txoko bat herrigunean. Emakume Oñatiarrak elkartu eta konpartitzeko lekua izatea. Jabekuntza eskola aurrera eramateko,... (2)	9	8	10	3	30
26	Emakumeak: San Prudentzio autobus geltokian beldurra pasatzen dugu. Autobusak ez daude koordinatuta.	11	10	10	2	33

ELKARBIZITZA

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
27	Kalezaharrean taberna jabeak batetik, gazteak beste batetik eta bertako biztanleen artean zerbait egin beharra dago. Nire proposamena da, bizikidetza lantzeko prozesu bat burutzea, zabaltzea (tabernetako ordutegiak eta zarata errespetatu, konbibentzia landu,...). Ea behingoan danak esaterik duten esanbeharrak eta adostasun batera iristen diren!!	4	4	4	0	12

EUSKARA

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
28	Oñatierazko kalitatea hobetze aldera, ikastetxeekin adostu eta abiarazi aurrerantzean: maila jakin bateko ikasleekin ikasturte oso bat Oñatieraz egitea Batuz egin beharrean	11	10	11	1	33

HAUR ETA GAZTEAK

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
29	Jolasteko gailu gehiago jarri	2	2	0	0	4
30	Gaztelekuan.Txikientzako gunea dagoen bezala, goiko solairua egokitu adin tarte horrentzat (16-18). Beraientzako kursiloak egiteaz gain, uneoro eurentzako eskuragarri egon dadin.	6	7	7	1	21
31	Kontzertu hobegoak ekartzea. Adb: vendetta, ETS, Iزارo, Berri Txarrak, Gatibu, Autobus Magikoa,...	-7	-6	-5	0	-18
32	Gaztelekuan porterixa mugikor batzuk egotia atara ahal izateko ordu jakin batzutan eta espazio jakin baten erabiltzeko lehenengo aparkalekuan adibidez	6	7	9	0	22
33	Kontzertuak, ekintza desberdinak (puenting, egun tematiko bat, kasan+blankako etxeak berreskuratu)	6	8	6	3	23

HEZKUNTZA

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
34	Hezkuntza mailan adibidez proiektu bateratuak egin, eskola bakoitza bere kabuz ibili beharrean. Denak bat egin zenbait ekintzetan.	11	11	10	1	33
35	Herritarren konpetentzia digitala garatzeko formakuntza saioak.	9	8	11	2	30

KULTURARTEKOTASUNA

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
36	Programa sozial gehiago: aniztasuna lantzeko, intergenerazioak,...	8	9	8	0	25
37	Unibertsitatera herrialde desberdinetako jendea datorrenean aprobeztatu eta jardunaldiak antolatu kultura konpartitzeko (hitzaldiak, bilera informalak, bazkari bat,...)	6	10	7	0	23

ONGIZATEA

		1.	2.	3.	Perts	Guztira
38	Oñatiko gaztetxoek kontsumo ohiturak aztertu eta prebentziorako plana eta ekintzak martxan jarri. Aretxabaletan eta Eskoriatzan egin duten bezala. Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek San Juan de Dios ospitalearekin akordio bat zintu dute 4 urtetan zehar prebentzion lan egiteko. Datuak jasotzen dituzte inkesta bidez gaztetxo guztien artean (DBH 2-3-4) errealitatea hobeto ezagutzeko. Eta prebentziorako ekintzak martxan jartzen dituzte. Kontsumo arazoak izan dituzten eta San Juan de Dios ospitalean dauden gazteek parte hartzen dute ematen diren haibat txarlatan. Ekimen hau oso interesgarria da	7	7	6	0	20

	eta Oñatin ere beharrezkoa. Honi buruz aurkitu dudun artikulua bat: http://www.diariovasco.com/alto-deba/hospital-juan-dios-20180225001155-ntvo.html					
39	Hacer entrevistas a personas que tienen a alguien que les cuida y a personas cuidadoras para mejorar el servicio y dar a conocer las experiencias.	8	10	9	1	28
40	Actuaciones para la sensibilización para mujeres y emigrantes	12	12	11	2	37
41	Pisos comunitarios para gente mayor	12	12	12	0	36
42	Helduendako aktibidade gehio organizatu, diskapazituak baztertu Gabe	11	11	11	2	35
43	Pisu tutelatuak. Betiko zaharren egoitzei alternatibak eman. Gustatuko litzaidake honen inguruko leku batzuk topaiteen hasia. Agian udalak baitu ere. (2)	11	11	10	4	36
44	Centro de día para todos los días entre otras cosas	5	4	3	0	12
45	3. adinean, erorketen prebentzioarako eta ahalmen fisikoen mantentzea burutu ahal izateko, antolakuntza edo lokal bat. Aipaturiko helburu hoiaren aurrean, jardura fisiko programak diseinatu eta pertsona hauekin burutzeko espazioa.	10	9	8	4	31

EMAITZAK

Baloratutako proposamen guztietatik erdia pasako da udaleko teknikarien eskuetara hauek balorazio teknikoa egiteko. Zerrenda honetan jasotzen dira **AURRERA EGINGO DUTEN PROPOSAMENAK**:

Cine al aire libre	27
Ugarkaleko umeen parkea estali. San Martineko komun publikoa bezalakoa jarri.	21
San Martin auzoko parkean eguzkitik babesten duen estalpea jarri (gaur egungoak ezer gutxi estaltzen du). San Martingo haur parkea estali	21
En algunos parques poner actividades para niños/as de 6 a 14 años. El otro día vi en Tolosa un parque con actividades de equilibrio con cuerdas. Y estaba lleno de niños/as de edades entre 6 y 12 calculo yo. Saqué unas fotos y si quereis os puedo enviar. Errekalde eskola gunean, kanpoko patio eta zelaiak erabiliz, herritar guztien eskura egongo litzatekeen jolas parke alternatiboa egitea.	23
Olakuako saskibaloian jolasten dugun herritar talde bat gara. Udaberrian eta udan asko jolasten dugu eta inguruan beste herritar ugari erabiltzen dute jolasleku hau. Tamalez ondo jokatzeko behar diren marrak ez dira ikusten. Honako hau eskatzen dugu: Saskibaloian eta beste kirolean jolasteko marrak margotzea. Saskietako sareak konpontzera. Negurako 9-ak arte jolastu ahal izateko argiak ipintzera. Olakuako parkea berriztu, kanasta berri batzukin.(2)	30
Rokodromo baxuren bat ere jarri daiteke herriko paretaren baten edo beste, San Lorentzon bertan ez dakit paretara egokirik den hortarako, hurrei asko gustatzen zaie eskalatzea, baita nagusieri ere!	23
Berdintasuna gehiago landu. Berdintasun plan osatuagoa	35
Oñatiko Emakume Txokoa/Etxea martxan jartzea. -Emakumeentzat txokoa edo leku aproposa gertatzea.-Emakumeentzat jabetze eskola eta ikastaro eta ekimenak indartzea, gehiago eskaintzea. Emakume txoko bat herrigunean. Emakume Oñatiarrak elkartu eta konpartitzeko lekua izatea. Jabekuntza eskola aurrera eramateko,... (2)	30
Emakumeak: San Prudentzio autobus geltokian beldurra pasatzen dugu. Autobusak ez daude koordinatuta.	33
Oñatierazko kalitatea hobetze aldera, ikastetxeekin adostu eta abiarazi aurrerantzean: maila jakin bateko ikasleekin ikasturte oso bat Oñatieraz egitea Batuz egin beharrean.	33
Gaztelekuan.Txikientzako gunea dagoen bezala, goiko solairua egokitu adin tarte horrentzat (16-18). Beraientzako kursiloak egiteaz gain, uneoro eurentzako eskuragarri egon dadin.	21
Gaztelekuan porterixa mugikor batzuk egotia atara ahal izateko ordu jakin batzutan eta espazio jakin baten erabiltzeko lehenengo aparkalekuan adibidez.	22
Kontzertuak, ekintza desberdinak (puenting, egun tematiko bat, kasan+blankako etxeak berreskuratu)	23
Hezkuntza mailan adibidez proiektu bateratuak egin, eskola bakoitza bere kabuz ibili beharrean. Denak bat egin zenbait ekintzetan.	33
Herritarren konpetentzia digitala garatzeko formakuntza saioak.	30
Programa sozial gehiago: aniztasuna lantzeko, intergenerazioak,...	25
Unibertsitatera herrialde desberdinetako jendea datorrenean aprobetxatu eta jardunaldiak antolatu kultura konpartitzeko (hitzaldiak, bilera informalak, bazkari bat,...)	23
Hacer entrevistas a personas que tienen a alguien que les cuida y a personas cuidadoras para mejorar el servicio y dar a conocer las experiencias.	28
Actuaciones para la sensibilización para mujeres y emigrantes	27
Pisos comunitarios para gente mayor	36
Helduendako aktibidade gehio organizatu, diskapazituak baztertu Gabe	35
Pisu tutelatuak. Betiko zaharren egoitzei alternatibak eman. Gustatuko litzaidake honen inguruko leku batzuk topaillen hasia. Agian udalak baitu ere. (2)	34
3. adinean, erorketen prebentziorako eta ahalmen fisikoen mantentzea burutu ahal izateko, antolakuntza edo lokal bat. Aipaturiko helburu hoiaren aurrean, jarduera fisiko programak diseinatu eta pertsona hauekin burutzeko espazioa.	31

HURRENGO URRATSAK

Saio irekiekin amaitzerakoan geratzen diren urratsak zeintzuk izango diren azaldu dira:

- Aurrera egingo duten proposamenak teknikarien eskuetara pasako dira, balorazioak egin ahal izateko.
- Iraila amaieran, balorazio tekniko guztiak jasoko dira eta dokumentu batean aurkeztuko dira.
- Prozesuaren azken fasea, urrian abiatuko da, eta proposamenen bozketa izango da.

